

GOROSTIA, BASOAREN ERDIAN ISLA BAKARRA

Irati Goikoetxea

Beasain, 12 urte

Pertsianan zulotxo bat aurkitu ondoren, eguzkiaren lehen printz apalek esnatu naute iratzargailuari aurre hartuz.

Aho zabalka eta oraindik erdi lotan komunera abiatu naiz. Ispilu aurrean jarri eta nagiak ateratzeari ekin diot. Berehala ohartu naiz astebukaera dela eta besteetan ez bezalako patxadarekin hartu dut ohiko gosaria. Gaztazko ogitarteko bat, hiru mandarina eta urontzia prestatu ondoren, nire motxila txiki batean sartu, bizkar gainean jarri, gurasoak agurtu eta Hariztizabal basorantz abiatu naiz alaiki bertso kantatu batean. Eskailerak binaka jaitsi eta kalera irten bezain azkar, udazkeneko hego-haize epela sentitu dut neure bi masailetan.

Zerua urdin dago, marra gorritzat batzuk nabari dira, eta berehala amonak askotan esaten zidan esaera etorri zait burura: "Goizeko laino gorri, gaueko iturri".

Bi pausu eman orduko, besoetan erosketa poltsa bat duela, "Eroski"ra doan Joxepa anderea agurtu dut. Joxepa ikusten dudak bakoitzean, irrifar bihurtutxoan irteten zait, ikasgela osoa txora-txora egin da daukan eta ni Calahorrako piperrak baino gorriago jartzen nauen bere biloba Tomas baita-torkit burura.

Barre txikiak eginez noala, aitona Martinekin

egin dut topo. Pintto artzain txakurra atzetik duela ohartzean, hezurretarainoko zirrara eta beldurra nagusitu da nire gorputzean, bihotzaren taupadak urrutira entzun daitezkeelarik. Behin, zortzi urterekin gertatutakoaz oroitu bainaiz: “200 metro egin nituen txakur bat atzetik segika nuela, baina 200 metro haiek 5 kilometro adina iruditu zitzaizkidan. Jendeak, lasai egoteko esaten zidan, baina nik atzera begiratu eta lehoitzar baten aurpegi gosetia ikusten nuen”. Eta gaur egun txakur bat ikusten dudan bakoitzean, dardaka, bihotza atera beharrean jartzzen zait.

Nire pentsamenduak alde batera utzi, aitona Martin agurtu eta pausoa arindu dut txakurrarengandik urrundu nahian. Konturatzeko herria atzean utzi eta basoko bidezidor batean sartu naiz. Bertako ikuskizuna, hunkigarria, liluragarria eta zoragarria iruditu zait, edozein bihotz triste alaitzeko modukoa. Zuhaitzak erdi biluzik, jantzia galtzen ari dira eta lurrak berriz, hamaikatxo kolorez osaturiko alfonbra labainkor baten antza dauka. Orbel ihartuen “kris-kras” hotsak lagunduz, zenbait unetan nire gorputzari ezin eutsirik, balantzaka, aurrera egiten dut.

Lurreko mozorroak azken pausuak ematen ari dira, bakoitzak bere biltegia osatuaz lozorroan gelditu aurretik. Baina, mozorro guztietan langileena eta gehien harritzen nauena inurria da. Bera baino hiruzpalau aldiz neurri eta pisu handiagoak garraiatzen baititu bere gorputz txikiaren gainean. Narrastien artean sugea ere hemendik ibiliko dela pentsatzeaz bakarrik, oilo-ipurdia jartzzen zait.

Halako batean, iritsi naiz basora eta hor ikusi dut gorostia uharte bakarti antzera haritzez inguraturik. Perla gorritz jantziriko zuhaitz honen edertasunak erabat txunditurik nauka eta gehienetan bezala besarkatu dut maiteminduen modura. Bere besoetan ez dut erantzunik aurkitzen; baina bat-batean, tanta fresko bat somatu dut kopetean. Gora begiratu eta negarrez ari dela ikustean goibel dagoela konturatu naiz:

—Zer gertatzen zaizu “Bolintxio”? —horrela deitzen baitiot bolatxo betetik dagoelako.

—Txori lagun batzuek hegoalderantz alde egin dute eta bertakoak (txantxangorria, zozoa, belea...) eskupeten hots beldurgarriez, mutututa gelditu dira. Bakarti sentitzen naiz. —erantzun dit hitz-telka eta ahots dardarti batez.

Bat-batean eta gure elkarrizketa moztuz, sekulako zalaparta nagusitu da inguru hauetan; beldurra eta ikara berriz, nire barnean. Hegazti bat, zuzenezuzenean etorri da babes bila nire besoetara. Atzetik berrogei urte inguruko gizona, eskuetan eskopeta bat duela. Txoriak nire eskuetan jarraitzen du, ehiztaria haserre, otso ahotsez mintzatzen zaidan bitartean:

—Ume ñaño eta zikin hori, eman iezaidazu txori hori, nirea da eta!

—Bihozgabea! Ez al dizu lotsarik ematen? —galdetu diot erabat mindurik.

—Ez zaitez petraldu, animaliek ez dute sentimendurik eta! —erantzun dit belarrietatik kea dariola.

—Hemen sentimendurik gabekoa zeu zara!

Honetan, basozainaren autoa entzutean, chiztaria tximista moduan desagertu da. A zer nolako lasaitasuna aldegin duenean! Baina, barealdiak ez du gehiegi iraun. Oraindik hankak eta eskuak dardarka ditugula, bi gizon gerturatu zaizkigu aizkora bana eskuetan dutela. Beraien asmoak igarrita, erdian, aurrez-aurre jarri naiz:

—Kendu paretik, neskatsa, arbolatxo hori botatzera goaz eta! —esan dit bi gizonetako batek harro-harro.

—Ez, ez naiz kenduko, jakin behar zenuke gorosti gutxi daudela eta babesturik gainera.

—Ikusten al dek Patxi, 40 zentimetrora ez dek iristen eta dagoeneko ekologista! Ez zaitetz txolina izan eta bazter zaitetz!

Negar zotinka eta oihaneko Tarzanen antzera garrasika hasi naiz. Berehala inguratu zaizkigu basurdea, azeria, basakatua, eta beste hainbat animalia. Gertatua usainduz, bi gizonen praka barre-nak jateari ekin diote. Iskanbila eta zalaparta hau ikustean, inguruan dabilen Miel basozaina heldu da. Han gertatutako guztia jakin ondoren, bizitza osoan ahaztuko ez dudan isuna jarri die eta berehala alde egin dute burumakur eta marmarka.

Lainoak iturri bilakatu dira aipaturiko esaera baieztatuz. Gorostia eta animaliak agurtu ostean pozik abiatu naiz etxerantz, besteak beste, zuhaitza goizean baino alaiago utzi dudalako.

Aurrerantzean, baso hau, ni eta nire lagunen elkargune kuttuna bilakatu da eta guztion gozameneko paradisu eder bat osatuz, herriko birika bakarrak babestea eta indartzea lortu dugu.